

# MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

## BANAIZ BAGARA

Ane Pirata eta Shaniel auzokoak dira eta askotan elkartzen dira auzoko pilotalekuan elkarrekin palan jolasteko.



**BIZIPOZA**

*elkarlanean*

Tira, Ane, azken tantoa. Etxera joan behar dut amari eskolako lanak egiten laguntzera.

Amari eskolako lanak egiten laguntzera?



Eta zertan laguntzen diozu amari?

Euskara ikasten ari da eta etxeko lanak egiten laguntzen diot.





Jende desberdina elkartzen  
gara euskarako klaseetan.  
Eguneroko bizitzan euskaraz  
egin nahi dugu.



Ximon,  
kafesne bat nahi  
duzu?

Bai, kafesne  
bero bat.



Ebaki bat  
jarri mesedez.

Azukrearekin  
nahi duzu?



Moussa,  
pasa mesedez  
horko ontzi hori.

Urdina?  
Oraintxe.





Alkandora eroso bat nahi nuke.

Zein neurritakoa behar duzu?



Ximon pozik egongo da, ezta?

Ximon pozik dago eta ni ere, pozik. Hemen bizitzeko euskara ikasi nahi dut.

Ama, orain nire txanda. Matematikako etxeko lanekin lagundu behar didazu.



banaizbagara

Banaiz Bagara elkarteak 2009an sortu zen Urnietan, gure gizartean jatorri ezberdinetako pertsonen artean euskaraz bizitzeko aukera gehiago sortzeko, pertsona gehiagorentzat.



2013an, Europako Kontseiluak sortutako "Language for Work" proiektua ezagutu zuten; Europan zehar migratzaileei eta bertako langileei lantokiko komunikazio gaitasunak lortzen eta hobetzen laguntzea helburu duena.

2015. urtetik aurrera, bere jardueran nagusia lan munduan euskara erabiltzera bideratuta dago. Horretarako, formatu desberdinak sortu dituzte: Guk ere Euskaraz Lanean, Euskara Moduluak eta Euskara Plus programa.



Andre Zigarrogileen plaza, 1 (Tabakalera)  
3. solairua (Impact Hub barruan) 20012 Donostia  
Tel.: 943 331 455 – 645 733 818 / info@banaizbagara.eus